



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko azaroaren 2an

84 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Ingurugiroa kudeatzeko neurri administratiboei buruzko Foru Lege proiektua. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzkoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua (4. or.).

—Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua. Atzera bidalitako Foru Lege proposamena (6. or.).

—Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa, Augusto Pinochet Chileko jeneralaren estradizioari buruzkoa, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurri guztiak eskain ditzan Lodosako Pablo Sarasate Batxilergoko Institutuko ikasleek dohainikako eskola-garraioa izan dezaten, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (10. or.).

—Ebazpena. Horren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da eskola garraioari buruzko Plan bat egin dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Zerri-sektorearen krisialdiak Nafarroan duen eragina eta horri aurre egiteko balizko jarduketei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (12. or.).

- Olagueko saihesbiderako obrak geratzeari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (13. or.).
- Ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatiari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egin (13. or.).
- Ebro aldeko Erriberan TVE-Navarraren seinalea hartzeari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egin (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Ingurugiroa kudeatzeko neurri administratiboei buruzko Foru Lege proiektua

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Ingurugiroa kudeatzeko neurri administratiboei buruzko Foru Lege proiektuari emen-

dakinak aurkezteko epea **1998ko azaroaren 20ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1998ko urriaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

Lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeak indarra hartzearen ondorioz, aldatu egin da lurzoruaren jabetzaren araubide juridikoaren konfigurazioa, beti ere lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko harako 10/94 Foru Legean ageri zen hartaz ari garela; izan ere, haren oinarria 1992ko Testu Bategina baitzen, eta horretan ezarritako manu ia guztiak indarrrik gabe gelditu dira 6/98 Legeko Lehenbiziko Xedapen Indargabetzailearen bidez.

Konfigurazio berri honek berehalako eragina du, besteak beste, urbanizatzeko prozesuak ukitutako lurzoruen jabeen eskubide eta betebeharrei buruzko araubidearen gainean.

Hor ditugu, adibide gisa, 6/98 Legeko 14.2 c) eta 18.4 artikulua, hurrenez hurren, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrien jabeen betebeharrei buruzkoak, zeinetan ezartzen baita Administrazio jarduleari nahitaez eta dohainik laga behar zaiola eremuaren probetxamenduaren % 10aren heineko lurzoru puska, bai eta adierazten ere ehuneko hori dela gehienez eska daitekeena eta legedi autonomikoak murriztz ditzakeela hala kopuru hori, nola Administrazioaren partaidetza lurzoruari dagokion urbanizazio zametan.

Arestiko manu horiek, 6/98 Legeko Azken Xedapenaren arabera, eskubideen erabilerarako oinarriko baldintzak dira, Konstituzioko 149. artikuluko 1.1go idaztiari jarraikiz.

Aipatutako horrek berehalako eragina du Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/94 Foru Legeko 13. artikulua edukian, Estatuko legedian finkatutako 100eko 10etik goitiko lagapena ezartzen den kasuetan. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, probetxamenduaren urbanizazio zametan Administrazioaren esku gelditzen den partaidetzari edo lagapenaren gehieneko kopuruaren murrizketari dagokienez, bi gai horietarako beharrezkoa baita Foru Komunitateko legegintza organoak berariaz hartzea legegintzako erabakiren bat.

Hirigintza arloan Foru Komunitateak duen arau-esparrua, osorik hartuta, berriz aztertzea komeni edo beharrezkoa ote den ukatu gabe, orain beharrezkoa da, argitasun eta segurtasun juridikoarengatik, berehala aldatzea Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 10/94 Foru Legeko 13. artikulua edukia, Estatuko legediari egokitzeko, alde batetik, eta, beste aldetik, abuztuaren 10eko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 44.1 artikulua arabera Foru Komunitateak

lurraldearen antolamendu eta hirigintza arloan dituen eskumen eskusiboak erabiliz, arautzeko, kasu bakoitzean, Administrazio jardulearen aldeko probetxamendu-lagapenaren portzentaiak, eta murrizteko portzentaia horiei dagozkien urbanizazio zamak, era horretan orekatu ahal izateko udalen lurzoru-ondareen gainean Estatuko legedi berriak eragindako ondorio negatiboak.

Horiek horrela izanik, Foru Lege honen helburua da uztailaren 4ko 10/94 Foru Legeko araubidea egokitzea estatuko legediak ezarri eta gutxitu duen lagapen portzentaia gehieneko kopuruari, hala hiri-lurzoruen kasuan nola urbanizagarriean, udal guztietan, eta kentzea probetxamenduen urbanizazio zametan Administrazio jarduleari dagokion partaidetza, aipatu laga behar horretatik datorkiona, Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legean lagapen-araubidea aipatzen duten artikulua guztiak aldatuz.

Lehen artikulua.- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 13. artikulua aldatu egiten da, horra:

“13. artikulua. Eskura daitekeen hirigintza-probetxamendua:

1. Hiri-lurzoruan eskura daitekeen probetxamendua honako hau izanen da:

a) Exekuzio unitateetan sartutako lurretan: banaketa-areari edo, bestela, exekuzio unitateari dagokion probetxamenduaren ehuneko 90.

b) Exekuzio unitateetan sartu gabeko lurretan, zutik dagoen eraikinaren ordezkapen hutsa ez denean, eta Planak probetxamenduaren gehikuntza baldin badakar: planeamenduak erakarritako probetxamenduaren ehuneko 90.

Horrela gertatuz gero, gainontzeko probetxamenduaren ehuneko 10, Administrazioari dagokiona, diruz ordainduko da, hirigintza balioaren arabera.

c) Exekuzio unitateetan sartu gabeko lurretan, zutik dagoen eraikinaren ordezkapena denean, probetxamenduaren gehikuntzarik gabe: planeamenduak uzten duen probetxamenduaren ehuneko 100, jabeak, bere kontura, planeamendu horrek ezartzen dizkion urbanizazio zamak bere gain hartzeko betebeharra galarazi gabe.

d) Gune historikoen barruan diren lurretan: planeamenduak uzten duen probetxamenduaren ehuneko 100.

2.- Lurzoru urbanizagarrian, eskura daitekeen probetxamendua honakoa izanen da: planeamen-

duak zehazten duen probetxamenduaren ehuneko 90.

3.- Administrazio jarduleari lagatzen zaion probetxamenduaren 100eko 10 hori, derrigorrez eta doan laga ere, urbanizazio-zamarik gabekoa izanen da, jabeen pentzutari izanen baitira zama horiek, beraien probetxamenduen arabera.”

Bigarren artikulua.- Beste artikulua bat jarriko da, 13 bis, horra:

“13 bis artikulua. Lagatu beharreko hirigintza-probetxamendua 50.000 biztanletik gorako udal-tan.

Urbanizazio kontsolidaturik gabeko hiri-lurren jabeek hauxe laga beharko diote administrazio jarduleari: planeamenduak banaketa-areari edo exekuzio unitateari ezarri dion hirigintza-probetxamenduaren 100eko 10ari dagokion lurzorua.

Lurzoru urbanizagarriaren jabeek hauxe laga beharko diote administrazio jarduleari: planeamenduak dagokion sektore edo eremuari ezarri dion hirigintza probetxamenduaren 100eko 10ari dagokion lurzorua.”

Hirugarren artikulua.- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 155.2. artikulua aldatu egiten da, horra:

“155. artikulua. 2. Sistema honetan, nahitaezko eta debaldeko lagapen batetik heldu den probetxamenduaren titularra den Administrazioak ez du parterik hartuko urbanizazio kostuetan probetxamenduari dagokion proportzioan. Kostu horiek gainerako jabeen artean banatuko dira zeini bere probetxamenduaren proportzioan.”

Laugarren artikulua.- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 167.2. artikulua aldatu egiten da, horra:

“167. artikulua. 2. Dagokion probetxamenduaren lagapen nahitaezko eta debaldekoaren titularra den Administrazioak ez du proportzio horretan txerterik hartuko kostu horietan. Kostu horiek gainerako jabeen artean banatuko dira zeini bere probetxamenduari dagokion heinean.”

Bosgarren artikulua.- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 169.5. artikulua aldatu egiten da, horra:

“169. artikulua. 5. Borondatezko birzatiketa sisteman, dagokion probetxamenduaren lagapen nahitaezko eta dohainekoaren titularra den Administrazioak ez du parterik hartuko urbanizazio gas-

tuetan doakion probetxamenduaren arabera. Kostu horiek gainerako jabeen artean banatuko dira zeini bere probetxamenduari dagokion heinean.”

Seigarren artikulua.- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 174.1. artikulua aldatu egingen da, horra:

“174. artikulua. 1. Planeamendu, kudeaketa eta urbanizaziotik heldu diren gastuak bakoitzak ekarri dituen terrenoen eta unitate osokoen arteko proportzioen arabera partituko dira. Hala ere, dagokion probetxamenduaren lagapen nahitaezko eta dohainekoaren titularra den Administrazioak ez du parterik hartuko urbanizazio kostuetan doakion probetxamenduaren arabera. Kostu horiek gainerako jabeen artean banatuko dira ekarri dituzten terrenoen portzentaiaren proportzioan.”

Zazpigarren artikulua.- Beste artikulua bat jarriko da, 183 bisa, horra:

“183 bis artikulua. Urbanizazio gastuak.

Dagokion probetxamenduaren lagapen nahitaezko eta debaldekoaren titularra den Administrazioak ez du parterik hartuko urbanizazio kostuetan probetxamenduari dagokion proportzioan. Kostu horiek gainerako jabeen artean banatuko dira zeini bere probetxamenduaren proportzioan.”

Xedapen iragankorra

Administrazio jardulari lurzorua urbanizaziozamarik gabe lagatzeko araubidea hurrengoei aplikatuko zaie: onurak eta zamak banatzeko prozedurei, baldin eta Lege honek indarra hartzen duenean oraindik ere behin betiko onspena hartu ez badute.

Xedapen indargabetzailea

Indarrrik gabe gelditzen dira Foru Lege honetan ezarritakoaren aurka jotzen duten edo bateraezina diren legezko nahiz erregelamedu mailako manu guztiak.

Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa

ATZERA BIDALITAKO FORU LEGE PROPOSAMENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoaren babesean, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena atzera bidali duela jakinarazi du. Hori horrela, hona

ERABAKIA:

Lehena. Lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena atzera bidali dela jakitun dagoela adieraztea.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozera-maileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena premiazko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Hirugarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun, Europako herrialde guztietan ari dira lanaldiaren murriztea oinarri duten esperientziak egiten, hainbat aplikazio eredu eta tresna erabiliz, eta guzti hori enplegu politikaren barrenean.

Horien artean, Frantziako eta Italiako Gobernuek bultzatutako lege ekimenak daude; horiei, dagokien aurrekontu-esleipenak ere egin zaizkie. Nahi dena da negoziazio prozesu orokorra bultzatu, lanaldia murriztu eta berrantolatze, horrela, lehentasunezko helburua lortu ahal izateko: lana sortzea.

Nafarroan dagoen langabezi tasa Europan dagoenaren antzekoa da, eta beharrezkoa da arazo gizartearentzat onargarri den mailara txikiagotzea, ondoren, enplegu betea lortzeko.

Urte hauetan Administrazio Publikoaren artean eta gizarte-eragile eta eragile ekonomikoen artean lortutako adostasuna dela medio, langabezia gutxitzeko jarduketa zehatzak egitea errazten duen giroa sortu da, eta horren isla izan dira sektoreen arteko zenbait akordio eta enplegu plan.

Akordio horietan, erakunde sindakalek proposatu dute neurri multzo bat kontutan izatea eta horiek zehaztea; neurri horien artean daude emaitza positiboak izan dituzten politikei eustea eta baita neurri berriak hartzea ere, eta horien artean lanaldiaren murrizketa.

Marko horretan garatu dira foru lege honetako artikulua. Foru lege honekin nahi izan dena da gizarte-eragile eta eragile ekonomikoen arteko akordioak osatu eta garatu; helburua da lege-tresna sortzea, lanaldia murriztuz enplegua handiagotzeko aukera horri buruzko negoziazio prozesuak irekitzen lagunduko duena.

Beraz, gure komunitatea politika berritzaileen aitzindari izatea da helburua; hemengo politikak Europan enpleguarekiko joerekin batera gara daitezela eta, halaber, gai izan daitezela ebaluatze lanaldia murrizteak, epe laburrean, enplegu berriak sortzeko duen eragina. Politika horiek praktikan jartzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak bideratuko dira.

1. artikulua.

Foru Lege honen xedea da neurri publikoak ezartzea lanaldia antolatu eta murrizteko eta Nafarroako Komunitateko produkzio-sektoreetako enpresa publiko eta pribatuetan 35 orduko lanaldia ezartzeko.

2. artikulua.

Foru lege honen arabera, ondoko kontzeptuak honela ulertu beharko dira:

1. Lanaldiaren berrantolaketa:

a) Funtsezko aldaketak eguneko, asteko, hileko edo urteko lanaldiaren ordubanaketan.

b) Lana txandaka edo ezarri eta/edo berrantolatu.

c) Ordutegi zatitua ordutegi jarraitua bihurtu, edo alderantziz.

d) Errendimentuagatiko ordainketa sistemak ezarri, lan denbora kentzen dutenak.

e) Beste edozein, urteko lanaldiari eutsita ere, funtsean, lanaldi horren banaketa ezberdina badakar.

Lan denbora gutxitzea: urtean zehar osotara lan egin behar diren orduak gutxitzea, beti ere ondoko arrazoiren bategatik bada:

a) Lanaldiaren murrizte zuzena.

b) Jai egun eta/edo oporren gehitzea.

c) Lege bidez edo hitzarmenen bidez ezarritako baimenengatiko denboraren gehitzea.

d) Banakako lanaldiaren murriztea, murrizte hori lanaldi osoko kontratua lanaldi partzialeko bihurtzeagatik gertatzen denean, edota murrizte hori errelebu kontratuak egiteagatik gertatzen denean.

e) Lanaldiaren beste edozein murrizte, horrekin kontratazio berriak egiten badira.

3. artikulua.

1. Nafarroako Komunitateko Administrazioak, toki entitateek eta horien menpe dauden erakunde autonomoek, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera, astean 35 orduko lanaldia ezarriko die lanean dituzten funtzionario publikoei eta araubide estatutario publikoa aplikagarri duten langileei, eta lan egin ez diren ordu kopuruarekin plantila handitu egingen da, galdutako lanaldi bakoitzagatik urteko lanordu-kopurua kontutan hartuta langile bat hartuz.

2. Ezinen dira, inondik inora, aparteko orduak hartu lanaldia murriztuagatiko orduak ordeztzeko.

4. artikulua.

Nafarroako Komunitateko Administrazioaren zuzeneko edo ez-zuzeneko partehartzea duten enpresek, toki entitateek eta horien mende dauden erakunde autonomoek, astean 35 orduko lanaldia ezartzeko behar diren neurriak bultzatuko dituzte. Halaber, lan egin ez diren ordu kopuruarekin plantila handitu egingen da, galdutako lanaldi

bakoitzagatik urteko lanordu-kopurua kontutan hartuta langile bat hartuz.

5. artikulua.

Nafarroako Gobernuak astean 35 orduko lanaldia ezartzea bultzatuko du komunitateko produktio eta zerbitzu sektore guztietan, eta horrek aurreko artikuluetan aipatu den moduan sortuko du enplegua, ondoko enbidez:

a) Behar diren baldintzak sortuz langileen legezko ordezkariaren eta enpresariaren arteko akordioa lor dadin bai lanaldiaren murrizteari buruz, bai lanaldiaren berrantolamenduari buruz.

b) Behar diren zerga pizgarriak emanez, ekitaldi bakoitzean Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean finkatutako direnak.

c) Enpresei fondo galdura dirulaguntzak emanez, 500.000 pezetakoak ere izan daitezkeenak aurretik aipatu den lanaldiaren murrizketaren bidez sortutako lanpostu bakoitzagatik.

Emanen den zenbateko hori % 20 gutxiago izanen da sortutako lanpostua aldi baterakoa bada, eta halaber, eta hau edozein kasutan, sortu den lanpostua ez bada lanaldi osokoa, zenbatekoa aipatutako lanaldiaren murrizketari dagokion heinean gutxiagotuko da.

Aipatu diren dirulaguntzak hiru hilabetero emanen dira, eta horiek emateko nahitaezkoa izanen da sortutako lanpostuari eustea.

Xedapen iragankorra

5. artikuluko c) idazatian jasotako neurriak aldi baterako indarra izanen du, 1999. urtean soilik.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatzeko behar diren erregelamendu mailako xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean bertan hartuko du indarra. Hala ere, ondorio ekonomikoak 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu, eta Nafarroako Gobernuak, horretarako, egoki diren kredituak eratuko ditu, legez xedaturikoari jarraituz.

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Augusto Pinochet Chileko jeneralaren estradizioari buruzkoa

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Augusto Pinochet Chileko jeneralaren estradizioari buruz aurkezturiko mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean eztabaidatua eta bozkatua izan dadin:

Pinochet-ek 1973ko irailetik 1983ko abendura bitartean agindu zituen espainiar herritarren erailketengatik auzitegien aurrean erantzun dezan Baltasar Garzón eta Manuel García Castellón epaile jaunak egiten ari diren auzibideko jarduketak ikusirik.

Baltasar Garzón epailearen aginduz Londren atxilotua izan den Augusto Pinochet txiletar jeneralaren estradizioa izapida dezan premiatu dute espainiar Gobernua bai Espainiako Giza Eskubideen aldeko Elkarteak bai Jurista Progresisten Elkarteen Federazioak.

Bi erakunde horiek adierazi dute Pinochet nazioarteko zuzenbideko arauak betez atxilotua izan dela. Arau horiek zuzeneko eragina dute Espainiako barne zuzenbidean, espainiar Konstituzioko 10.2 eta 96.1 artikuluetan oinarrituz; horien arabera, estatu guztiek daukate auzitegien bitartez gizateriaren kontrako krimenen egileen aurka joateko obligazioa.

Hori guztia kontuan harturik eta aurrean azaldutakoarekin koherentzia mantenduz, honako erabaki-proposamen hau aurkezten da:

Erabaki-proposamena

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuarengana jo dezan eta Txileko diktadorearen estradizioari oniritzia ematea eska diezaion, egozten zaizkion delituengatik espainiar auzitegien aurrean erantzun dezan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuarengana jo dezan eta horri Entzutegi Nazionaleko fiskaliari Garzón eta García Castellón epaileei laguntzeko agintzea eska diezaion, Erresuma Batuko, Suitzako eta Estatu Batuetako epaileek kasu honetan izan duten jarrerarekin bat etorritz.

3.- Halaber, Nafarroako Parlamentua premiatzen da Erabaki honen kopia bidal diezaaien Diputatuen Kongresuari, Espainiako Gobernuko Lehendakariari, Garzón eta García Castellón epaileei eta komunikabideei.

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurri guztiak eskain ditzan Lodosako Pablo Sarasate Batxilergo Institutuko ikasleek dohainikako eskola-garraioa izan dezaten

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurri guztiak eskain ditzan Lodosako Pablo Sarasate Batxilergo Institutuko ikasleek dohainikako eskola-garraioa izan dezaten".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dio Biltzarreko Mahaiari:

Lodosako Pablo Sarasate Institutuko Gurasoen Elkarateak, Lodosa, Azagra, Andosilla, Cárcar eta San Adriánego Udalekin batera, kexua agertu zuten aipaturiko ikastetxera joan ahal izateko eskola-garraioaren egoera dela-eta.

Institutuko Gurasoen Elkarateak hainbat bilera izan du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuarekin eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuarekin, helburua

izanik Lodosako Pablo Sarasate Institutuko ikasleen dohainikako eskola-garraiorako irtenbidea aurkitzea. Aipaturiko eskola-garraioa linea bertan behera geratu da 98-99 ikasturte honetan.

Nafarroako Gobernuak adierazi die irtenbidea ez dagoela Gobernuaren eskuetan, eta Nafarroako Parlamentura jo dezatela esan die.

UBI ikasten ari diren aipaturiko herrietako ikasleak ikastetxe horretako ikasle izan dira Batxilergoan zehar, eta inguru horretan horiek UBI ikasi ahal izateko beste ezein Instituturik ez dagoela esan behar da.

Batxilergo ikasleek ikastetxe hori aukeratu zuten berori existitu den hogeitun urteetan zehar bertan zein ildori jarraitu izan zaion jakinik eta ikastetxea askatasunez hautatu ahal izateko daukaten eskubidearen babesa erabiliz.

Horregatik, ikastetxe horretako ikasleen gurasoak baztertuak sentitzen dira, eskola-garraio dohainikakoa ez izateagatik, beste hainbat ikasleekin alderatuz; adibidez, unibertsitatekoekin, Lanbide Heziketakoekin edo IEEkoekin, horiek Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako dohainikako garraioa baitute.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari honako erabaki-proposamen hau onets dezala eskatzen zaio:

Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurri guztiak eskain ditzan Lodosako Pablo Sarasate Batxilergo Institutuko ikasleek dohainikako eskola-garraioa berehalakoan izan dezaten.

Iruñean, 1998ko urriaren 23an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Ebazpena. Horren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentua premia- tzen da eskola garraioari buruzko Plan bat egin dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentua premia-tzen da eskola garraioari buruzko Plan bat egin dezan". Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko urriaren 28a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentua premia- tzen da eskola garraioari buruzko Plan bat egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua pre-miatzen du eskola garraioari buruzko Plana landu eta Parlamentu honi aurkez diezaion hiru hilabete-ko epean. Aipatu planak zerbitzu hori egituratuko du, alde, barruti eta eskualdeen arabera, derrigo-rrerko hezkuntzan zein derrigorrezkoaren ondo-koan, eta zerbitzuan sartzen diren alor guztiak hartuko ditu (ibilbideak, jagoleak, eta abar).

F saila:
GALDERAK

Zerri-sektorearen krisialdiak Nafarroan duen eragina eta horri aurre egiteko balizko jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak zerri-sektorearen krisialdiak Nafarroan duen eragina eta horri aurre egiteko balizko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaitoten:

Zerri-sektorea, bi urtez kotizazio onak izan ondoren, krisialdi larrian sartu da eta merkatuko prezioak ekoizpen-kostuak baino dezente txikiago dira. Zerri-sektorearen krisialdiaren sorburuak berak zaildu egiten ditu epe laburreko irtenbideak, soberakinak atzerrian saltzeko neurriak hartzen ez badira, behintzat.

Europako Batasuneko hainbat estatu hartu ditu krisialdi honek eta Europako Batasunetik etorri diren jarduketek ez dute behar bezala konpondu: 1996 eta 1997ko kanpainetako prezioak kiloko 210 eta 260 pezeta bitartean ibili baziren ere, gaur egunekoak kiloko 120 pezeta ingurutan daude, eta are baxuago, batez besteko ekoizpen-kostua kiloko 140 eta 150 pezeta bitartean dagoen arren.

Ekoizleek eta eragindako sektoreek Administrazio ezberdinei eskatu diete ahalik eta neurri gehien hartzea prezio-jaitsiera handi hori (%30etik gora) konpontzen saiatzeko.

Zerri-sektorearen krisialdiak Nafarroan duen eragina eta horri aurre egiteko balizko jarduketak direla-eta, hurrengo galderari erantzuna ematea eskatzen dut:

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak balioetsi al du zerri-sektorearen prezioen krisialdia noraino iristen ari den? Nola eragiten die zerikusia duen alor bakoitzari (ekoizleak, hiltzeak, eraldatzaileak...)? Nafarroako Gobernuak egin al du osoko balioespenik Komunitatean gertatzen ari diren galerei buruz? Eta eskualdeka?

2. Zer jarduketa aurreikusi du Nafarroako Gobernuak zerri-sektoreeko aipatu krisialdiaren eragina arintzeko? Aipa bitez erabili diren azterlanak, azterketak eta jarduteko aukerak, eta baita epe laburrean ezar daitezkeenak ere.

3. Nafarroako Gobernuak koordinazio bilerarik egin al du eragindako beste autonomia erkidego batzuekin, eta baita Nekazaritza Ministerioarekin, konponbidea bilatzeko elkarrekin?

4. Nafarroako Gobernuaren azterketen arabera, zer aukera du zerri-sektoreak etorkizunerako? Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak jarduketaren bat burutu du edo burutze-ko asmoa du zerri-ustiatzeak egokiago antolatze aldera?

Iruñean, 1998ko urriaren 22an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Olagueko saihesbiderako obrak geratzeari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Olagueko saihesbiderako obrak geratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Olagueko saihesbiderako obrak gerarazita daudela agerikoa izanik, honako hau jakin nahi da:

1.- Zer dela-eta gerarazi dira Olagueko saihesbiderako obrak?

2.- Nafarroako Gobernuak onetsitako hasiera-ko proiektua ukitzen duen aldaketarik ba al dago?

3.- Obrak zenbat denbora geldirik egotea aurreikusten da?

4.- Zein da obrak bukatzeko ezarritako epea?

5.- Obrak entregatzeko epeak Gobernuak aurreikusi bezala beteko al dira?

Iruñean, 1998ko urriaren 21ean

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatiari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatiari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Miguel Nuin Morenok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko bozeramaileak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Aretako poligonoa inguratuz Ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatia uneotan atzerapen nabaria (urtebetekoa, gutxi gorabehera) jasaten ari da haren exekuzioari dagokionean; horrek auto-ilara handiak eragiten ditu Atarrabiako sarreran puntako ordu eta egunetan, batez ere igande-arratsalde eta -ilunabarretan.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

– Aretako poligonoa inguratuz Ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatiaren eraikuntza zergatik ari da jasaten hain atzerapen handia?

– Azpiegitura hori bukatzeko zer epe aurreikusten du uneotan Nafarroako Gobernuak Herri-lan Departamentuak?

Iruñean, 1998ko urriaren 23an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Ebro aldeko Erriberan TVE-Navarraren seinalea hartzeari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Ebro aldeko Erriberan TVE-Navarraren seinalea hartzeari buruz egindako galderaren biderape-na onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du erantzun diezaioten:

Badirudi Nafarroako Ebro aldeko Erriberako zenbait herritan, arratsalde programak eta albiste-geiak bigarren katean ematen dituen TVE-Navarraren seinalea hartzeko zailtasunak daudela etxe partikularretan, izan ere, TVE-Riojaren seinalea sartzen delako hara.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak egoera hori?

2. Abian jarri al du Nafarroako Gobernuak neurriren bat hori saihesteko?

3. Noiz jarriko ditu Nafarroako Gobernuak behar diren bideak Erriberako herrietako biztanle-ek zailtasunik izan ez dezaten bigarren katean TVE-Navarraren seinalea hartzeko?

Iruñean, 1998ko urriaren 24an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri
edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--